

**GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK
BABESTEKO EUSKAL
PROGRAMA**



**JARRAIPEN-MISIOA
Guatemala 2023**

2023ko urtarrilaren 21tik - 24ra

Txostenaren egilea:

(zehar)
errefuxiatuekin

Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko EAEko Programa:



Laguntzaileak:



Bilbo, 2023.

EDUKIEN AURKIBIDEA

Euskal ordezkartzaren osaera.....	4
Egindako bilerak.....	5
Esker-aitortzak.....	6
Balorazioa eta ondorioak.....	7
Bibliografia.....	26

EUSKAL ORDEZKARITZAREN OSAERA

EUSKO JAURLARITZA

Monika Hernando Porres, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendaritza
Ainara Arrieta Archilla, eLankidetzeta-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.

Karen Rodriguez Guinea, eLankidetzeta-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.

EUSKO LEGEBILTZARRA (Giza Eskubide eta berdintasun Batzordea)

Leixuri Arrizabalaga Arruza, lehendakaria

Iñigo de Iturrate Ibarra, Euzko Abertzaleak - Nacionalistas Vascos.

Oihana Etxebarrieta Legrand, EH Bildu.

Miren Gallastegui Oyarzábal, Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak.

Iñigo Martínez Zatón, Elkarrekin Podemos - IU.

Carmelo Barrio Baroja, Grupo Vasco Popular - Ciudadanos.

Juan Carlos Areizaga Hernández, letratua.

GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEAK

Sonia González Martín, Bakea eta Elkartasuna Euskadi.

Inmaculada Múgica Flores, ALDARTE Lesbiana, Gay eta Transexualen arreta zentroa.

Arantza Chacón Ormazabal, Zehar-Errefuxiatuekin elkarteak.

Verónica Álvarez García, Zehar-Errefuxiatuekin elkarteak.

EGINDAKO BILERAK

Guatemala, 2023ko urtarrilaren 21etik 24ra

Giza eskubideen aldeko erakundeak, gizarte-mugimenduak eta herritarren mugimenduak

- La Cuerda elkarte feminista
- UK'ux B'e elkarte maia
- "Emakumeen Sektorea" Aliantza Politikoa - APSM
- SERJUS - ASERJUS Garapenerako Elkarte Komunitarioa
- Colectivo Poder y Desarrollo Local elkarte zibila- CPDL
- Nekazarien Garapen-Batzordea (CODECA)
- Nekazarien Batasunaren Batzordea - CUC
- Equipo de Estudios Comunitarios y Acción Psicosocial – ECAP
- Federación Guatemalteca de Escuelas Radiofónicas – FGER
- Mujeres Transformando el Mundo - MTM
- Hiesaren aurrean Sexualtasun Integralari Laguntzeko Elkarte (OASIS)
- Organización Trans Reina de la Noche - OTRANS-RN

Nazioarteko babes-antolakundeak:

- ACOGUATE, Proyecto de Acompañamiento Internacional de Guatemala
- Nazioarteko Bake Brigadak - PBI Guatemala
- Protection International Mesoamérica
- Guatemalako Giza Eskubideen defendatzaileak babesteko unitatea - UDEFEGUA

Nazioarteko erakundeak:

- Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren Bulegoa (OACNUDH): Herrialdeko ordezkaria

Guatemalako erakunde publikoak:

- Giza Eskubideen Prokuradoretza.
- Ministerio Publikoa

Diplomaziako kideak:

- Espainiak Guatemalan duen enbaxada
- Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia (AECID)

ESKER-AITORTZAK

Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko EAEko Programak¹ **elkartasun politikoa darabil**, jazarpen eta mehatxu artean giza eskubideen alde lan egiten dutenak **babesten laguntzeko**; horretarako tresna bat da. Horretan ahalegintzen gara lagun horiek Euskal Autonomia Erkidegoan hartzen ditugun aldian, eta abiapuntu horretatik proposatzen dugu EAEko ordezkariak hara joatea.

Era berean, modu bat da euskal gizarteari erakusteko testuinguru liskartsuetan zernolako egoeretan aritzen diren giza eskubideak defendatzen dituzten taldeak, erakundeak eta komunitateak. Esperientzia eta ezagutza horiek ekarpen oso garrantzitsua dira gizartearen eraldatzeko geure prozesuetarako ere.

EAEko ordezkariok eskerrak eman nahi dizkiegu giza eskubideen erakundeei, indigenen eta nekazarien komunitateei eta herri-sektoreei, egin diguten harreragatik, eta egiten duten lanarengatik, lan nekazaria egiten baitute bizitza duina eta lurraldea babesteko, eta gizarte-justizian oinarritutako bakea eraikitzeko. Eskerrik asko guztiei zuen proposamenak, salaketak, minak eta esperantzak guri azaltzeagatik, eskuzabaltasunez.

Eskerrik asko, bereziki, Guatemalako Nekazarien Garapenerako Batzordeari (CODECA), haiek ere parte hartu baitzuten Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programan, eta harrezkero egin diegun jarraipenak eragin baitu euskal ordezkariaren bisita. EAEko ordezkariak arreta berezia jarriko dugu haien segurtasuna eta babesa zaintzeko, baita helarazi dizkiguten eskaerak bete daitezen ere.

Eskerrak orobat hango erakunde publikoei, enbaxadako langileei eta Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren Guatemalako Bulegoari (OACNUDH), eskaini diguten denbora eta elkarlanarengatik.

¹ <https://www.euskadi.eus/defensores-y-defensoras-de-los-derechos-humanos/web01-s1lehbak/es/>

ITZULI GARA GUATEMALATIK. ORAIN, BALORAZIOA ETA ONDORIOAK.

Bilerak egin, Jalapa eta Guatemala hirian lekukotzak jaso eta dokumentazioa aztertu ondoren, EAEko ordezkariak kideok:

LEHENENGOA - Kezkatuta gaude, ikusi dugulako **mehatxuak, etxe-hustutze behartuak, kriminalizazioa, judizializazioa, estigmatizazioa eta lekualdatze behartuak egin-eragiten dizkietela giza eskubideen defendatzaileei, herri indigenei, nekazari-komunitateei**, luraren eta lurraldearen defendatzaileei, sexu- eta genero-aniztasunaren defendatzaileei eta emakumeen eskubideen defendatzaileei. Bego gure aitortza eta elkartasuna giza eskubideen alde egiten duten defentsa baketsuarengatik.

Giza eskubideen aldeko erakundeek eta gizarte-kolektiboek adierazi dute Guatemalako Estatuak zor historikoa duela defendatzaile erailekin, ez bakarrik zigorgabetasuna saihestuz, hots, neurri eraginkorrak hartuz haien hilketak argitzeko eta arduradunak harrapatzeko, baita eskubideen defentsaren alde bizia eman zutenen lana berariaz aitortuz ere.

Datuek diotenez, **2022an Guatemalan 4 defendatzailearen hilketak erregistratu zen** (emakumezko kazetari bat eta CODECA Nekazarien Garapenerako Batzordeko hiru kide). Hala diote Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoaren (OACNUDH) datuek².

Eskubideen alde dihardutenen aurkako biolentzia eta errepresio horretan, hilketak dira adierazpide muturrekoena; eta, datuak ikusita, oraindik ere CODECA da era horretan gogorren zigortua. **2018tik, CODECAko 27 kide erail dituzte Guatemalan**. Bereziki kezagarria da zenbat hilketak gertatu diren herrialdearen ekialdean; izan ere, erregistraturik dagoenez, Jalapa departamentuan bertan 12 kide erail dituzte; hasi Luís Arturo Marroquín, 2018ko maiatzaren 9an; eta Nicolasa López Méndez eta Victoria Méndez Agustínerarte, 2023ko maiatzaren 6an³.

² OACNUDH Guatemala (2023), <https://oacnudh.org.gt/wp-content/uploads/2023/03/Situacion-de-los-Derechos-Humanos-en-Guatemala-2022-Informe-del-Alto-Comisionado.pdf>.

³ <https://prensacomunitaria.org/2023/05/condenan-el-asesinato-de-dos-mujeres-integrantes-de-codeca/>.



Baina ez dira hilketak bakarrik. Eutsi nahian dabilzan erkidegoek eta eskubideen aldeko taldeek era askotako erasoak jasaten dituzte: informazioa lapurtzen diete, begipean dauzkate, jazarri egiten dituzte, erasotu fisikoki eta hitzez, armez beldurtu, hilko dituztela mehatxatu, komunikabideetan gezurrez zikindu, zibernetikaz jazarri, kriminalizatu eta judizializatu.

Emakumeentzat, gainera, herrialde hura berez da patriarkala, egituraz da bortitza, errotik da kontserbadorea, hango erlijio-talde eraginkorrenak betiko familia-modu eta generorolak defendatzen dituzte. Han, **defendatzaile emakumezkoen aurkako bortxakeria politikoa eta instituzionala berezia da, besteak ez bezalakoa**; emakumeak direlako. Horregatik, beste eraso-modu batzuek ere hortxe dira: generorolak ez betetzeagatik estigma eranstea, sexualitateari buruzko zurrumurruak zabaltzea, sexu-erasoak, bortxaketa-mehatxuak, eta hurbileko senitartekoen aurka ere baliatzea indarkeria, batez ere seme-alaben aurka.

Baina antolakunde eta talde sozialek beste arrisku bat ere ikusten dute: **kontserbadoreak geroz eta indartsuago daude, sare sozialak gorroto-diskurtsoak zabaltzeko erabiltzen dira, eta, ondorioz, estigmatizazioa eta erasoak areagotu egin dira LGBTIQ+ pertsonen** eta haien eskubideak defendatzen dituztenen aurka. Haien aldarria ozena da: "gorroto-krimen edo giza eskubideen urraketa gehiagorik ez sexu-joera, genero-nortasun, genero-adierazpide edo sexu-ezaugarriengatik", kolektiboaren eskubideen defendatzaileak benetan babestea, eta horrelako gorroto-krimenetan nahasturik diren kargu publikoak zigortzea.

Datuak argiak dira. Guatemalako Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Unitatearen datuen arabera (UDEFEQUA), Alejandro Giammattei jaunaren gobernuaren lehen bi urteetan 2.057 eraso erregistratu ziren defendatzaileen aurka, alegia, "herrialdean eskubideak eta askatasunak defendatzen dituztenen aurkako indarkeria

nabarmen handitu da", lau urteko beste edozein agintaldirekin alderatuta⁴. Eta goranzko joera horrek berdin jarraitzen du, **2022an 2.265 eraso erregistratu baitziren**: "2.143, defendatzaileen aurka (697 emakume eta 1.446 gizon); eta, 122, kolektiboen aurka"⁵. Hurrengo koadroan jasotzen den bezala, CODECAk guztira 611 eraso erregistratu zituen bere kideen aurka.

Tipo de Agresión	No. De Casos	Víctimas de la represión		
		Hombres	Mujeres	Total
Ataques físicos	5	3	2	5
Amenazas y hostigamiento (ataque verbal y llamadas por teléfono)	47	33	14	47
Procesos penales	22	34	11	45
Encarcelamientos y detenciones arbitrarias	8	5	3	8
Asesinatos	2	2	0	2
Ataques a comunidades	11	278	217	495
Ataques en actividades	2	6	3	9
Totales	97	361	250	611

Iturria: CODECA

Baietz diote giza eskubideen erakundeek eta gizarte-mugimenduek: geroz eta indarkeria politiko handiagoa erabiltzen dela eskubideak defendatzen dituzten pertsonen eta kolektiboen aurka eta erresistentzian diharduten komunitateen kontra; eta ohartarazi dute eremu demokratikoa mehetzen ari dela, bizitza zibila militarizatzen, eta orain errazagoa dela giza eskubideen urraketak areagotzea; eta, testuinguru horretan, justizia eskatzeko manifestazio eta prozesuetan Polizia Nazional Zibilak indar gehiegi erabiltzen duela, errepresio-aginduei erantzunez; patruila konbinatuak ezarri dituztela: Polizia Nazional Zibilaren eta Armadaren arteko segurtasun-patruilak; eta goi-mailako militarrek eta militar ohiak izendatzen dituztela erabaki-postuak betetzeko.

Eraso horietako batzuk ez dira, soilik, erakunde edo defendatzaile jakin batzuen aurkakoak; komunitate oso baten aurkakoak baizik. Ildo horretan, CODECAk El Camarón komunitatearen kasua salatu du, San Luís Jilotepeque udalerrian (Jalapako departamendua): hots, nola jazartzen dituzten, enpresa pribatuen indarrari men ez egiteagatik eta energia elektrikoa nazionalizatzeko eskatzeagatik. Euskal ordezkariak hara joan zenean, presio-neurri gisa komunitate guztiak 18 hilabete zeramatzen energia

⁴ 2020ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra arte, UDEFEGUAK 2.057 eraso erregistratu zituen. Hemen: <https://udefegua.org.gt/wp-content/uploads/2022/07/INFORME-UDEFEGUA-2021.pdf>

⁵ UDEFEGUAREN datuak OACNUDHtik artuta <https://oacnudh.org.gt/wp-content/uploads/2023/03/Situacion-de-los-Derechos-Humanos-en-Guatemala-2022-Informe-del-Alto-Comisionado.pdf>

elektrikorik gabe, ea horrela amore ematen zuten, barne-tentsioak agertzen ziren eta komunitatea zatitzen zuten.



Bestalde, giza eskubideen aldeko erakundeek eta gizarte-kolektiboek **kezka berezia agertu dute, batetik, kriminalizazioa areagotu egin delako defendatzaileen aurkako jazarpen-estrategia gisa**, eta, bestetik, jendea arrastoan sartu nahian, kasu jakin batzuk judizializatu egin dituztelako, ea, familiak eta gizarte-kolektiboak beldurtuz, borrokan amore ematen duten. Kriminalizazio hori lortzeko, zigor-zuzenbidea darabilte, okerkeriaz erabili ere, eskubideen aldeko bidezko lana oztopatzeko, batez ere lurraren, lurraldearen eta ingurumenaren defendatzaileen aurka; baina baita mendeku modura ere, giza eskubideen urraketak direla-eta justizia eskatzeko prozesuak hasten dituztenen aurka. Hortaz, erakunde publikoak geroz eta ahulago, eta geroz eta eraso gehiago herrialdeko justiziaren independentziaren aurka; eta, testuinguru horretan, defendatzaile kriminalizatuen egoera ikaragarri larria da. Alde horretatik, nazioarteko komunitateari laguntza eskatzen diote, beren lana publikoki aitortzeko eta kasuen jarraipena egiteko, epaiketen behaketaren bidez. Hori funtsezkoa da prozesu egokia bermatzeko.

OACNUDHren⁶ datuen arabera, aurreko urtearen aldean 2022an kriminalizazioa % 54,34 hazi da, batez ere megaproiektuei aurre egiten dietenen aurka. "Hazkunde kezkarria" inondik ere. Kasu batzuetan, "enpresa pribatuek bultzatu dituzte akzio penalak, batez ere palmondo-enpresek, hidroelektrikoek eta meatzaritzakoek, agintari indigenen aurka", bai akusazio partikular gisa, bai instituzioetan eraginez, instituzioek kargu penalak inputa ditzaten. Esate baterako, Alta eta Baja Verapaz departamentuetan bertan, eutsi nahian

⁶ Ibidem 2.

dabiltzan eta PBI-Guatemalaren laguntasuna daukaten erakundeen eta komunitateen artean, egiaztatu da "buruzagi indigenen aurkako harrapaketa-aginduak 2.000 baino gehiago izan direla".⁷

Egoera horiek zerk sortu dituen? Oinarrian, beti antzeko **gatazkak daude: lurra erabiltzeko aukera, herri-ondasun naturalen alde egin nahia, eta komunitate indigenen lurralde-eskubideak**. Euskal ordezkariarekin batu diren kolektiboetako batzuek esan digute ez dela makala kontua, lurraldearen beste harrapaketa bat ari dela gertatzen, "Europako energia-ereduarengatik eta, logika kapitalistak aginduta, lurrak bildu eta gehiegi ustiatu beharrez". Harrapaketa baita "kendu eta dena esku batzuetan bildu beharra, ondasun naturalak suntsitu eta herri-ondasunak pribatizatu beharra", ura eta elektrizitatea izanik kasurik larrienak.

Horregatik, oraindik ere maiz gertatzen da **jendea bere lekutik at bidaltzea, bai epai bidez bai epaien arrastorik gabe**. OACNUDHk adierazi du 2022an horrelako 5 kasu dokumentatu dituela; kaltetuak, guztira, 250 familia. "Ez dituzte betetzen giza eskubideen nazioarteko estandarrak, alegia, aldez aurretik jakinaraztea, indarra neurritz erabiltzea, etxebizitzak ez suntsitzea eta jendea txukun birkokatzea eta lekualdatzea". Beste batzuetan, komunitateekin hasiak ziren elkarrizketa-prozesuak etenarazi egin dira; hala gertatu da Chicoyou komunitatearekin (Alta Verapaz)⁸. Beste antolakunde batzuek jakinarazi dute 70 kaleratze izan direla Alta eta Baja Verapazen bakarrik, indar militarrek eta segurtasun-enpresa pribatuetako langileek eginak.

PBI-Guatemalak ere antzera dio 2022ko txostenean⁹: «Polizia Nazional Zibileko agenteak eta Armada jendea kaleratzen ari dira, giza eskubideak eta komunitateen antzinako eskubideak urratuz». Garbi erakusten du, denok jabetu gaitezen, herriak zer-nolako errepresioa eta militarizazioa ari diren jasaten, baita eskubide-urraketak ere, "baita komunitateak kautelazko neurrien babesa eduki arren ere Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak (CIDH) emanda".

BIGARRENA - Testuinguru horretan, kezkarria da orobat indarkeria horrek **zer-nolako zigorgabetasuna** duen, are eta handiagoa tartean herri indigenak daudenean; lurra, lurraldea eta herri-ondasunak defendatzen dituzten nekazarien komunitateak; eta LGTBIQ pertsonen eta emakumeen giza eskubideak defendatzen dituzten erakundeak. Alde horretatik, Ministerio Publikoari eskatzen diogu -haren eskumena baita- egin dezala indarra gauza horiek ikertu daitezen.

⁷ [Informe Anual PBI 2022 3.pdf \(pbi-guatemala.org\)](#)

⁸ Ibidem 2.

⁹ Ibidem 7.

Giza eskubideen aldeko erakundeek eta gizarte-kolektiboek **salatzen dute “ustelen ituna”¹⁰ sendotu zenetik herrialdeko erakundeak errotik kooptaturik daudela eta botere-banaketaren printzipioa apurtuta**, Kongresuak Gobernuari helduleku bat eta legezkotasuna ematen dizkiolako eta justiziak, aldi berean, oposizioa jazarri eta kriminalizatu egiten duelako. Era berean -eta kezkaz ikusten dute-, badira lege-ekimen batzuk atzerakada nabarmena dakartenak giza eskubideen alorrean, baina, aldi berean, komunitateen eta antolakundeek ekimen legegileak bertan kateatuta uzten dituzte. OACNUDHk bere txostenean adierazten duenez, “2022an zehar, Kongresuko diputatu batzuek lege-ekimenak sustatzen jarraitu zuten, lortu nahian bertan azkenduta uztea barne-gatazka armatuan gertatu ziren nazioarteko delituengatik salatu eta kondenatuen erantzukizun penala, delitu horiek Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearekin bateraezinak izan arren. Horra hor, adibidez, 6099 Legearen ekimena, *Ley de fortalecimiento para la paz*”.¹¹

Gobernuak boterea itxi eta zentralizatu izanak berekin ekarri du atzera egitea emakumeen, sexu- eta genero-aniztasunen eta jatorrizko herrien eskubideetan. Gizarte zibileko erakundeek nabarmendu dute kezkak daudela ikusita nola ari diren ezartzen herri-ondasunak harrapatzeko kultura. Kaltea nabarmena da herritarren bizi-baldintzetan, baina mina sinbolikoa ere bada, saiatzen ari direlako parte-hartze publikorako espazioak murrizten.

Gure ordezkariak ere ikusi du, kezkak, nola ari diren desegiten giza eskubideen eta eskubide kolektiboek aldeko erakunde-ehuna, hala nola CIDHren neurrien jarraipena egiten duen Batzordea, Nekazaritza Gaietarako Idazkaritza edo Bake Idazkaritza, baita gatazka armatuaren biktimei ordaina emateko zeukan programa nazionala ere. Adibidez -garbi ikus dezagun zer ari diren egiten-, 2017ko abuztuan Jimmy Morales presidentek *non grato* deklaratu zuen Iván Velázquez, Zigorgabetasunaren Aurkako Nazioarteko Batzordeko (CICIG) zuzendaria. Zuzendari-aldi hori 2019ko irailean amaitu zitzaion, baina Guatemalako gobernuak ez zuen berritzeko eskatu. Eta ez dezagun ahaztu zertan ari diren betiko komunikabideak ere, diskurtso ofizialak eta oligarkiarenekin zabaltzen baitituzte, *status quo*ari bere horretan eusten laguntzarren. Eta, oro har, herritarrek horietan irakurri-ikusten dituzte.

Testuinguru horretan, geroz eta indarkeria handiagoa ari da erabiltzen defendatzaileen aurka eta eutsi nahian dabilzan komunitateen kontra, baina, gainera, erasoak zigorgabetasuna ere geroz eta hobeto lotuta dago. Ondorioz, gizarte-erakundeek eta giza eskubideen erakundeek justizia-sistemaren kooptazioa salatzen dute, eta garbi dute ez dutela inolako ziurtasunik Gorteak zuzenbidearen arabera ebatziko ote duen. Gainera, ohartarazten dute justizia eskatzeko prozesuak etengabe blokeatzen ari direla,

¹⁰ "Ustelen itunak" oligarkia ustelen, goi-kargu militarren, enpresa-eliteen eta krimen antolatuen arteko aliantzari egiten dio erreferentzia, zigorgabetasunaren bila. Terminoa 2017ko irailaren 13an sortu zen, Errepublikako Kongresuko hainbat diputatuk Zigor Kodea aldatzea erabaki zutenean, ustelkeria-akusazioetatik eta legez kontrako hauteskunde-finantzaketaren delitutik babesteko, espetxeratzeko eta haren aurkako ikerketa gehiago debekatzeko alternatibak lortuz.

¹¹ Ibidem 2.

zigorgabetasunari eustearren eta indarkeria horien atzean dauden elite politiko eta ekonomikoei laguntzearen. OACNUDHk ere eman du iritzia, eta ziurtatu du "Ministerio publikoak egin dituen gauza batzuek balitekeela ustelkeriari buruzko zenbait ikerketa katramilatzea eta independentzia judizialaren aurka joatea".¹²



Kriminalizatzeko kasuen atzetik, ordea, prozesu judizialak bizkor eta fundamentuz hasten dituzte. Izan ere -hala diote giza eskubideen erakundeek eta gizarte-kolektiboek-, estatuaren estrategia da, argi eta garbi, eskubideak defendatzen dituztenen lan zilegia eragozteko. **Bereziki kezagarria da legea zurikeriaz nola erabiltzen duten defendatzaileak kriminalizatzeko estrategia gisa.** Kezagarria da, halaber, prozesu judiziala amaitu eta epaia eduki aurretik nola darabilten, neurritz kanpo, prebentziozko espetxealdia, nahiz eta, berez, ihes egiteko eta prozesua oztopatzeko arriskua baldin badago bakarrik erabil daitekeen, eta baldintza hauek betez, gainera: egokitasuna, beharra, salbuespena eta proportzionaltasuna. Horregatik, premiazkoa da ziurtatzea askatasuna kentzeko edo murrizteko neurri orok legezotasun-printzipioa errespetatuko duela eta giza eskubideen nazioarteko estandarrak beteko dituela¹³.

Behin judizializatuta, prozesuak atzeratu eta luzatu egiten dituzte, estrategia batzuk erabiliz, adibidez, abisatu gabe entzunaldiak ezereztea edo atzeratzea; edo esleitutako fiskalak edo epaileak aldatzea, eta, hala, atzerapen-eskaera bat eginarazten dute, esleitu berri den kasua aztertzeko, jarduten hasi aurretik. Kautelazko neurriak ere aplikatzen dira

¹² Ibidem 2.

¹³ Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, 9. artikulua. 3. paragrafoa; eta Giza Eskubideen Batzordea, 35. ohar orokorra (2014), 38. paragrafoa.☐

eskubideak hertsatzeko, hala nola mugitzeko askatasuna murrizteko. Ondorioz, **defendatzaileak eta komunitateak prozesu judizial luzeetan murgilduta daude, errugabeak direla frogatu ezinik baina aldi berean jendearen begipean, benetan errudunak ez ote diren izango... ohorearen eta osotasun fisiko eta emozionalaren kaltetan** inondik ere, baina ez, bakarrik, zuzenean inputaturik daudenentzat, baita etxeoentzat eta borroka-lagunentzat ere. Ahaztu gabe zer-nolako karga ekonomikoa, pertsonala eta kolektiboa dakarten legezko defentsak eta prozesu bakoitzaren jarraipenak.

Normal-normalak diren beste jarduera batzuek ondo asko erakusten dute zer zaila den justiziara iristea eta indarkeriak zer-nolako zigorgabetasuna duen. Egiturazko arazoak dira, justiziaren jardun-modu gaiztotuak, eta, azkenean, bidezko epaiketarako eskubidea urraturik geratzen da. OACNUDHk¹⁴ aipatzen ditu batzuk bere txostenean: independentzia judiziala mugatzea; akusatua luzaroan atxilotzea, baita prebentziozko espetxeratze-agindurik gabe ere; entzunaldiak ateak itxita egitea gezurrezko arrazoiengatik; edo informazioa eskuratzeko eskubidea mugatzea, "kasuaren erreserba" nahierara erabiliz. Eta indigenak baldin badira, praktika horiez gainera, oraindik ere "estereotipo asko dago genero, arraza eta sozioekonomiaz" , bai eta beste oztopo linguistiko, kultural eta geografiko batzuk ere, eta, azkenean, haiek baztertzeko praktikak sortzen dira.

HIRUGARRENA – Era berean, kezkatuta gaude ikusita nola lanbide batzuetan **areagotu egin den kriminalizazioa eta jazarpena** sistema demokratiko eta zuzenbidezko baten alde egiten dutenen aurka; lan egiten dutelako sistema horretan ondo bermaturik egon daitezen adierazpen-askatasunerako eskubidea, informaziorako sarbidea eta eskubideak defendatzeko eskubidea. Horra hor, adibidez, **justiziako langileak** (epaileak, fiskalak eta justizia-administrazioko langileak), **giza eskubideen abokatuak eta kazetariak**.

Guatemalan, azken urteotan, ustelkeriaren aurkako borroka oso da ahuldu. Horrek esan nahi du eragile ustelak zigorgabe geratu direla eta ustelkeriaren aurkako eragileak, berriz, kriminalizatu egin direla, giza eskubideen urraketa larrien biktimei zuzenean eraginez eta herritarrek justizia eskuratzeko duten eskubidea oztopatuz.¹⁵ Ildo horretan, giza eskubideen erakundeak eta gizarte-kolektiboak ados daude: sistemak berak egin du huts, eta jada ez daukate espaziorik eskubideak baliatzeko. Horrela islatzen da Ustelkeriaren Pertzepzioaren Indizean (UPI)¹⁶. Indize horren arabera, Guatemala Amerikan okerren baloratutako bost herrialdeen artean dago, eta 2012tik etengabe eta nabarmen egin du

¹⁴ Ibidem 2.

¹⁵ Ibidem 7.

¹⁶ Nazioarteko Gardentasuna koalizioak egiten du KPIa, eta Guatemalan Herritarren Ekintza erakundeak ordezkutzen du.

okerrera, ustelkeriari aurre egiteko instituzioak desegin egin direlako eta justizia-operadore independenteak jazarri eta kriminalizatu egiten direlako¹⁷.

Amnesty Internationalek ere hala jasotzen du¹⁸: Giza Eskubideen Fiskaltzako eta Zigorgabetasunaren aurkako Fiskaltza Bereziko kide eta kide ohiek, Arrisku Handieneko¹⁹ Epaitegi eta Auzitegieta epaileek eta Konstituzionaltasun Gorteko kideek etengabe jasaten dituzte beldurrarazteko ahaleginak, jarraipenak, mehatxuak, funtsik gabeko prozesu penalak eta estigmatizazio-kanpainak bai sare sozialetan bai komunikabideetan, ustelkeriaren eta zigorgabetasunaren aurka egiten duten borroka independente eta inpartziala zikintzeko.

2022ko lehen seihilekoan, UDEFEGUAK 272 eraso eta mehatxu erregistratu zituen justizia-operadoreen aurka²⁰. OACNUDHren arabera²¹, 19 funtzionarioek, 17 justizia-funtzionarioek eta haien 6 abokatuk pairatu zituzten eraso horiek, hau da, 2021ean baino % 71,43 gehiagok.

Bere txostenean²², **CIDHk kriminalizazio-estrategia sistematiakoak aipatzen ditu: justizia trantsizionaleko prozesuetan eta gobernu- eta enpresa-gizonen aurkako ustelkeria-kasu handietan, zuzenbide penala baliatu eta bihurtu egiten dute, justizia-operadoreen aurka.** Arrisku handieneko epaileen kasuan, kriminalizazio hori areagotu egiten da "salaketak aurkeztuz eta aurre-epaiketak eskatuz, immunitate jurisdikzionalik gabe uztearren".

Kriminalizazio-estrategia horietan, ekintza judizialak eta zigor-arloko salaketak ere baliatzen dira. Ustelkeria-kasuetan nahasturik dauden eragile estatalek eta estatuz kanpokoek sustatzen dituzte, eta Terrorismoaren aurkako Fundazioak ere zeresan handia izaten du²³.

¹⁷ <https://www.prensalibre.com/guatemala/politica/guatemala-baja-un-punto-en-el-indice-de-percepcion-de-la-corrupcion-en-el-2022-y-alcanza-niveles-minimos-historicos-breaking/>

¹⁸ Txostena Amnesty Internationalek egin du, NBERen Aldizkako Azterlan Unibertsalerako, lan-taldearen 42. saioa, 2022ko ekaina (<https://www.amnesty.org/es/documents/amr34/5738/2022/es/>).

¹⁹ Arrisku Handieneko epaitegiak eta auzitegiak 2009an sortu ziren Guatemalan, CICIgen laguntzarekin eta gomendioarekin, giza eskubideen urraketa larri, ustelkeria eta krimen antolatua inguruko delituak aztertzeko.

²⁰ Datuak UDEFEGUarenak dira, eta CIDHk jaso ditu 2023ko urteko txostenean. (<https://www.hrw.org/es/world-report/2023/country-chapters/guatemala>)

²¹ Ibidem 2.

²² CIDH (2023), *Informe Anual 2022* (<https://www.hrw.org/es/world-report/2023/country-chapters/guatemala>).

²³ Terrorismoaren aurkako Fundazioa 1982-1983an hasi zen komunikabideetan gehiago agertzen, genozidioa zela-eta Efraín Ríos Montt estatu-buruaren aurka izan zen epaiketaren aurka azalduz eta gatazka armatuaren bere bertsioa eskainiz. Legez, 2013ko uztailean eratu zen, gerran egindako krimenengatik akusaturik zeuden militarrek defendatzeko batez ere (Guatemalan, ia 40 urteko gerra izan zuten). Azken urteotan, salatzaile edo kereila-jartzaile gisa agertzen da, agintari gorenak eta enpresaburu handiak ukitzen dituzten ustelkeria-kasu anitzetan, betiere haiek ikertzen eta epaitzen dituzten funtzionarioen aurka.

Ondorioz, Amnesty Internationalek dioenez²⁴, justizia-administrazioarekin lotutako pertsona batzuk bota egin zituzten, kargutik kendu, edo kartzelaratu egin zituzten, baita Virginia Laparra fiskal ohia ere, lau urteko espetxealdira zigortua, aurkako frogarik egon ez arren. Beste batzuek, hala nola Miguel Ángel Gálvez eta Erika Aifán epaileek, herrialdetik alde egin behar izan zuten. **2018tik 2022ra bitartean, Justiziako 22 operadorek herrialdetik alde egin behar izan dute, osasuna eta bizitza zainduko bazituzten.** Sistema mendeku-gose zebilkiten, militar, enpresaburu eta funtzionario ohi publiko ustelen aurkako kondenengatik²⁵.



OACNUDHk, bestalde, justizia-operadoreen aurkako «jazarpen-giro gaiztoa» aipatzen du, askatasun eta bidezko epaiketarako eskubideen urraketa kezkarriak dokumentatu ditu 2022an; besteak beste, bost funtzionario ohi atxilotu zituzten (Aliss Morán, Paola Escobar, Siomara Sosa, Samari Gómez eta Virginia Laparra), Zigorgabetasunaren aurkako Fiskaltza Bereziko funtzionario ohi bat (William Racanac) eta abokatu defendatzaile bat (Leily Santizo)»²⁶.

²⁴Amnesty Internationalen txostena, Guatemala 2022. (<https://www.amnesty.org/es/location/americas/central-america-and-the-caribbean/guatemala/report-guatemala/>).

²⁵ <https://www.resumenlatinoamericano.org/2022/11/03/guatemala-mas-jueces-quieren-salir-al-exilio/>

²⁶ Ibidem 2.

Kriminalizazio-prozesuetan ez da defentsa-berme oinarritzkoenik ere egon, ezin izan da prozesu egokia gertatu, eta horrek inpaktu psikosozial, pertsonal eta laboral sakonak izan ditu justizia-operadore kriminalizatuengan; eta beste funtzionario batzuegan, berriz, beldurra eragin du. Hori dena ikusita, OACNUDHk gomendio hau egiten du: "neurri egokiak, erabakigarriak eta premiazkoak hartzea, justizia-sistemaren independentzia indartzeko eta bermatzeko, eta epaileei beharrezko babes integrala emateko, bereziki beren ardurapean justizia trantsizionaleko kasuak, giza eskubideen urraketak edo ustelkeria dituztenei"²⁷.

Kazetarien lana ere gogor erasotu dute Guatemalan. 2022ko urrian, gizarte zibileko erakundeek salaketa hau egin zuten CIDHen aurrean: "adierazpen- eta pentsamendu-askatasunaren atzerakada bizkorra (...), eta kazetaritza egiteko bermeen murrizketa"²⁸.

Giza eskubideen aldeko erakundeek eta kolektibo sozialek salatzen dutenez, giro gaiztoa dago bai kazetaritza independentearen aurka, bai komunikabide batzuen kontra, hain zuzen ere, botere politikoaren erabilera maltzurra, ustelkeria eta zigorgabetasuna erakusten dutenen kontra. Ezagunak dira prentsari egindako murrizketak, erasoak, difamazio-kanpainak eta abusuzko zigor-prozesuak. PBI-Guatemagaren arabera²⁹, akzio penal gehienak Erakunde Judizialak eta Ministerio Publikoak sustatzen dituzte. El Periódico egunkariko presidente José Rubén Zamora ere atzeman zuten, Guatemalako prentsaren aurkako jazarpenaren eta kriminalizazioaren kasu adierazgarriena aipatzearen.

Guatemalako Kazetarien Elkartearen Behatokiak 105 eraso-, jazarpen- eta kriminalizazio-istiluren berri jaso zuen komunikabideetako langileen artean 2022an, eta ia 400, Giammattei presidentearen agintaldiaren hasieratik, 2020an³⁰. OACNUDHk, bestalde, sei kazetari erbesteratu izana dokumentatu zuen 2022an (bi emakume eta lau gizon), lanagatik zigortu egingo ote zituzten beldurrez³¹.

Herri-kazetaritza ere erasotzen dute. Izan ere, hedabide korporatiboaren monopolioaren aurrean -oligarkiak eta enpresa-eliteek erabiltzen baitituzte-, kazetaritza horrek hartzen du beregain kontrainformazio-lana. Badira komunikatzaile batzuk monopolio hori apurtzea erabaki dutenak, herriei ematea ahotsa, eta komunitateetatik informatzea. Nahi dute errespetu daitezela adierazpen-eskubidea eta prentsa-askatasuna, eta amaitu daitezela erasoak eta jazarpenak.

Radio Victoriako komunikatzaile batek ordezkaritza honi aurrez aurre azaldu zion nola erasotu zuten, San Marcosen zuzenean erretransmititzen ari zen bitartean. Izabal departamentuko beste kazetari batzuen atzetik ere ibili dira, xaxatzen, meha-proiektu bati

²⁷ Ibidem 2.

²⁸ <https://articulo19.org/se-denuncia-la-crisis-de-ddhh-en-guatemala-ante-la-comision-interamericana-de-derechos-humanos>

²⁹ Ibidem 7.

³⁰ <https://www.hrw.org/es/news/2023/01/24/preocupaciones-en-materia-de-derechos-humanos-para-las-elecciones-generales-de-2023>

³¹ Ibidem 2.

buruz informatzeagatik, El Estor herrian. Human Rights Watchek³² Carlos Choc-i zer gertatu zitzaion ere jaso du: “instigación a delinquir” akusazioa iritsi zitzaion, frogarik gabe, meha-proiektu baten aurkako manifestazioaren berri emateagatik. Azkenean, absolbitu egin dute, 2022ko irailean.

LAUGARRENA – Eskatzen diegu Guatemalako erakundeei berriro martxan jar dezaten **Defendatzaileak babesteko mekanismoa**, bai eta giza eskubideen gainerako erakunde eta politika publikoak ere, eta babestu dezaten **1996ko Akordioetatik datorren bake-agenda, eta haren jarraipena egin dezaten**. Eta gogora ekarri nahi dizkiegu orobat giza eskubideen eta babes-lanaren arloan nazioartean hartu dituen konpromisoak.

Giza eskubideen erakundeek eta gizarte-kolektiboek salatzen dutenez, estatuak ez du ezertan ere kunplitzen giza eskubideen defendatzaileak babestu behar hori, eta, bereziki azpimarratzen dutenez, bada konpromiso bat berariazko babes-mekanismo bat sortzeko, baina hori ere ez dute betetzen. Erakunde horiek, lehen, instituzioetan ere ba omen ziren nor babes-estrategiak sortzeko, baina nortasun hori galdu egin omen dute, eta orain gizarte zibil antolatua omen da lan hori bere bizkar hartu duena.

Bereziki kezkatu daude ikusita nola dabilen noraezean Giza Eskubideen Prokuradoretza, hain justu prokuradorea aldatu zutenetik, 2022an. Erakunde hori, orain, hutsa omen da, bere zereginetan hutsaren hurrena. Tortura Prebenitzeko Mekanismo Nazionala, berriz, tresna modura darabilte. Berez, askatasunik gabe direnen segurtasuna zaintzeko agindua du, baita defendatzaile kriminalizatuena ere, baina alferrik da, elite ustelen esku baitago, giza eskubideen urraketa larriak egin zituzten horien esku, haien tresna da, beste bat. Eta ezin ahaztu -betetzen hasi ere ez baitira egin- 5/2018 Jarraibidea. Fiskaltza Orokorrak eman zuen, azaltzearren fiskalek nola jokatu behar zuten giza eskubideen defendatzaileen aurkako delituetan, horretarako ikerketa-protokolo bat ezarriz. Ez dute, hortaz, konfiantzarik Ministerio Publikoan eta errepresalien beldur dira. Azkenean, defendatzaile batzuek erabaki dute jasan dituzten delituak ez salatzea.

Defendatzaileak babes gabe sentitzen dira. Izan ere, nazio mailako babes-istantzia eta mekanismoek ez dutenez beren lana ondo egiten -OACNUDHk³³ adierazten duen bezalaxe, errazagoa da defendatzaile horien aurkako erasoak gertatzea. Hala jakinarazi diote Ordezkaritza honi, eta dei egiten dute nazioartea berriro Guatemalara begira jar dadin, eta nazioarteko babes-mekanismo eraginkorragoak sor daitezela.

Bestalde, giza eskubideen aldeko erakundeek eta gizarte-kolektiboek eskatzen dute leku egokiak atondu behar direla Nazio Batuen Errelatoretza Berezien bisita ofizialearako, halaxe eskatzen baitu gizarte zibilak ere. Eta beste puntu ilun bat ere bai: Nazio Batuek

³² <https://www.hrw.org/es/world-report/2023/country-chapters/guatemala>

³³ Ibidem 2.

badute lantalde bat enpresei eta giza eskubideei buruzkoa, eta joan omen zen, Guatemalara, 2022an, gizarte-antolakunde batzuek gonbidatuta, baina Gobernuak eta enpresaburuek ez omen zuten haiekin bilerarik egin nahi izan. Beste eskari bat nazioarteko komunitatearentzat: ez dezagula begi aurretik galdu Aldizkako Azterketa Unibertsala, han bai baitira gomendio batzuk Guatemalako Estatuarentzat. Gobernuak esan zuen baietz, baina oso gutxi bete omen ditu; haietako bat, gomendio bat mekanismo bat ezartzeko, hain zuzen ere, gomendioak nola betetzen ziren jakiteko jarraipena egiteko.



Bizirik geratu diren biktimak eta haien familiak ekinak dira, egiten dute ahalegina ustelkeriaren eta zigorgabetasunaren aurka, baita justizia-operadore independenteek ere, baina bide luzea dago egiteko biktimei justizia, duintasuna eta erreparazioa emateko benetan, bai eta ziurtatzeko barne-gatazka armatuan (1960-1996) gertatutako krimenak ez direla errepikatuko.

Latinoamerikako Gaietarako Washingtingo Bulegoak dioenez (WOLA, ingelesezko siglen arabera), "1996an Bake Akordioak sinatu zirenetik, Guatemalako auzitegiek 26 epai eman dituzte gatazka-garaian giza eskubideak urratu diren 21 kasutan, genozidioa, sarraskiak, bortxazko desagertzeak, epaiketa gabeko exekuzioak, sexu-indarkeria eta gizateriaren aurkako beste krimen batzuk barne. Ia 70 militar, soldadu, polizia eta Autodefentsa Zibileko (EAG) patruiletako kide kondenatu dituzte. Haien artean badira goi-agintari militar batzuk ere. Matxinoen aurkako politikak diseinatu eta aplikatu zituzten, eta, haien itzalpean, basakeria larriak egin ziren herritar zibilen aurka, nahiz eta borrokalariak izan ez. Gainera, Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak (CIDH) Guatemalaren aurkako 14 epai eman ditu gerra-garaian giza eskubideak urratzeagatik"³⁴.

Hortaz, egin dira aurrerapauso batzuk justizia bilatzeko, baina, hala ere, elite ustelduek zigorgabetasuna bermatzeko estrategiak garatzen dituzte, legegintza-ekimenak bultzatuz, barne-gatazka armatuan egindako delituen erantzukizun penala deusean

³⁴ <https://www.wola.org/wp-content/uploads/2022/01/Esperanza-en-medio-de-la-oscuridad-las-victimas-continuan-en-su-busqueda-de-justicia-por-crimenes-del-conflicto-armado-interno-de-Guatemala.pdf>

uzteko, nazioarteko zuzenbidean hartutako konpromisoak gorabehera. Atzerapauso handiak egin dira Bake Akordioetatik³⁵ eratorritako Agenda Nazionala betetzeari dagokionez. Batzuetan, arrazoia garbi dago: Bake Idazkaritza, Bake Akordioen Kontseilu Nazionala edo Giza Eskubideen Batzorde Presidentziala (COPREDEH) itxi izana. Bestalde, OACNUDHk bere txostenean³⁶ aipatzen duen moduan, «Ordainen Programa Nazionalak biktimentzako erreparazio-proiekturik ezarri gabe jarraitzen du, haren funtzionamendua ahalbidetzen duen araudirik ez dagoelako», eta, 2020an Programaren egoitza guztiak itxi ondoren, oraindik ere biktimentzat nekeza da erreparaziora iristea; oztopoek hortxe diraute.

Bestalde, giza eskubideen aldeko erakundeek salatzen dutenez, justizia-sistemaren kooptazioa nabarmena da, eta justizia trantsizionaleko kasuak ezerezean uzteko ahaleginak egiten dira. Adibide argia da "Diario Militar" kasua, giza eskubideen urraketa larrien biktimek bultzatua: atzerapen larriak jasan ditu, inplikatuetakori onurak eman zaizkie, eta epaileetako bat jazarri egin dute (Miguel Ángel Gálvez), erbestera behartu arte; nahiz eta 2012an CIDHK adierazi zuen Guatemala giza eskubideen urraketa larrien erantzule zela bai kasu horretan, bai barne-gatazka armatuko beste batzuetan.³⁷

Uste dute, gainera, oso gutxi aurreratu dela Bakerako Agenda Nazionala betetzeko bidean, arazo garrantzitsuenei ez baitzaie heldu; izan ere, "linbo moduko batean geratu dira, eta han ez dago ekintza zehatzik, asmo onak besterik ez". Funtsezko gaiak atzeratu egin ziren, hala nola indigenek ere maila guztietan parte hartzea³⁸, zerga-erreforma progresiboa eta landa-garapenerako legea³⁹.

Horrenbestez, "orain ere indigenak baztertu egiten dira bai ekonomikoki bai sozialki, (...) eta, Konstituzioaren erreformak porrot egin duenez, gaur egun, Batzar Nazional Konstituziogile Plurinazional baten eskaera, herri eta erakunde indigenek ez ezik, gizarte-erakunde eta alderdi politiko progresista askok ere beren gain hartu dute".⁴⁰ Era berean,

³⁵ Bake Akordioak Guatemalako Gobernuaren eta Guatemalako Batasun Iraultzaile Nazionalaren (URNG) arteko 12 itun dira, eta barne-gatazka armatuari amaiera eman zioten. Ikus 1996ko abenduaren 29an sinatutako Bake Irmo eta Iraunkorreko Akordioa, hemen eskuragarri dagoena: https://www.usip.org/sites/default/files/file/resources/collections/peace_agreements/guat_final_96122_9.pdf eta Bake Akordioak betetzeko Esparru Legea (52-2005 Dekretua) <https://www.transparencia.gob.gt/wp-content/uploads/2017/07/LEYES-2005-52-001.pdf>

³⁶ Ibidem 2.

³⁷ Corte IDH. Kasu hauek: Bámaca Velásquez, Maritza Urrutia, Masacre Plan de Sánchez, Chitay Nech eta beste batzuk, Masacres de Río Negro eta Gudiel Álvarez eta beste batzuk ("Diario Militar") Vs. Guatemala. Behin-behineko neurriak, eta epaia betetzen dela gainbegiratzea. Giza Eskubideen Gorte Interamerikarraren Ebazpena, 2022ko azaroaren 22koa, 39. eta 40. paragrafoak.

³⁸ Herri indigenen nortasunari eta eskubideei buruzko akordioa, 1995eko martxoaren 31n sinatua. Diskriminazioaren aurkako borroka, Emakume Indigenen Defentsa Erakundea sortzea, herri indigenetako hizkuntza guztiak errespetatzea eta sustatzea, horien ofizializazioa sustatzea eta epaile elebidunak gaitzea, besteak beste, bultzatuko dituzten ekintzak jasotzen ditu.

³⁹ Alderdi sozioekonomikoei eta nekazaritza-egoerari buruzko akordioa, 1996ko maiatzaren 6an sinatua. Lurralde-antolamenduko politikak bultzatu nahi ditu, besteak beste, herri-etxebizitzak sustatzeko lurra eta baliabide produktiboak eskura jartzeko.

⁴⁰ <https://www.prensalibre.com/guatemala/comunitario/acuerdos-de-paz-en-guatemala-25-anos-despues/>

Akordioan ezarritako zerga-kargara iristeko erreforma-ahaleginak blokeatu egin dituzte enpresa-taldeek, eta agindutako nekazaritza-erreformak ez du eragotzi lurraren egungo birkontzentrazioa eta landa-eremuen pobretzea.

BOSGARRENA – Giza eskubideen aldeko erakundeen lana aitortzen eta babesten dugu. Nabarmendu nahi dugu kezkatuta gaudela asko estutzen dituztelako; **araudia oso zorrotza da, etengabe aldatzen eta gogortzen dute, eta beti badute norbait akuiluarekin atzetik**; izen ona zikintzeko kanpainak ere badarabiltzate, eta, ondorioz, gizarte-sarea hautsi eta gizarte zibila desmobilizatu egiten da.

2021ean, 4-2020 Dekretua onartu zen⁴¹, Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen Legea aldatzen duena (2-2003 Dekretua), "GKEen Legea" izenez ezagutzen dena. Hura indarrean jarri aurretik, CIDHk adierazi zuen ez zuela erreforma hori onartzen, uste zuelako "gehiegizkoak eta neurrigabeak" direla GKE horiek "eratzeko, inskribatzeko, arautzeko, funtzionatzeko eta fiskalizatzeko" baldintzak. Baldintza horiek, praktikan, «nahi bezala erabil litezke, herrialdeko gizarte zibileko entitateen kaltetan».⁴²

2019ko otsailean argitaratutako komunikatu bateratu batean Guatemalako eta nazioarteko hainbat erakundek salatu duten bezala⁴³, «Dekretuaren alderdi kezagarrienen artean nabarmentzen da Botere Betearazleari GKEen nortasun juridikoa ezerezteko ahalmena eman zaiola, *ordena publikoaren* aurkako jarduerak egiten dituztela uste denean; haietan esku hartzeko ahalmena, *interes edo ordena publikoak hala eskatzen duenean*; eta haien erregistroa ezerezteko ahalmena, *araudiaren edozein urraketagatik*».

⁴¹ <https://legis.gt/wp-content/uploads/2021/08/Decreto-Numero-4-2020.pdf>

⁴² [La CIDH y su RELE rechazan entrada en vigor de reformas a la Ley de Organizaciones no Gubernamentales en Guatemala \(oas.org\)](#)

⁴³ <https://www.amnesty.org/es/wp-content/uploads/sites/4/2021/05/AMR3418252020SPANISH.pdf>



Bestalde, giza eskubideen aldeko erakundeek eta gizarte-kolektiboek Ordezkaritza honi ohartarazi diote erreforma horrek eguneroko jardunean ere eragiten diela, etengabe aldatzen dutelako eta finantza- eta administrazio-kontrol gero eta handiagoak egiten dizkietelako. Eta baldintzak betetzen ez dituztenek, azkenean, deseginda geratzeko arriskua dute. Halaber, adierazi dute araudi berriak zaildu egiten duela gizarte zibil antolatuaren eskubideak defendatzeko lana, eta adierazpen-askatasunerako eta elkartzeko eskubideak ere arriskuan jartzen dituela. Eta, hala ere, kezkarik handiena beste bat da: ea nola erabiliko duten informazio eta dokumentazio hori guztia (erruz aurkeztu behar baitute, gaur egungo araudia betetzeko); eta **araudi hori ez ote duten tresna modura erabiliko defendatzaileak, erresistentzian dauden komunitateak eta nazioko eta nazioarteko erakundeak jazartzeko eta kriminalizatzeko.**

Horra hor, adibidez, ACOGUATEren aurkako gezur- eta kriminalizazio-kanpaina (Guatemalako Nazioarteko Laguntza Proiektua)⁴⁴. Erakunde horrek, 2000. urteaz geroztik, nazioarteko behaketa egiten du, eta arriskuan dauden giza eskubideen defendatzaileei eta erakundeei laguntza ematen die. 2021eko urriaren 12ko «Duintasunaren martxan» izandako gertaeren ondoren, gezurra eta mehatxua zabaldu ziren ACOGUATEren aurka. Indarkeria-ekintza haietan parte hartu izana leporatzen zioten, bai eta «ekintza horiek sustatu, bultzatu edo finantzatzea, atzerritik esku-hartzea eta ondare historiko nazionala hondatzea» ere.⁴⁵ Ondoren, urriaren 18an, kargu penalak aurkeztu ziren "albaramendua",

⁴⁴https://www.facebook.com/Acoguate/photos/a.2478335119057623/3798470187044103/?locale=es_ES

⁴⁵<https://srdefenders.org/guatemala-criminalizacion-y-hostigamiento-de-acoguate/>

"segurtasun nazionalaren aurkako jarduerak" eta "kultura-ondarearen harraparitza" delituengatik, protestan izandako gertaerak zirela-eta.

Gertakari horien ondorioz, bi errelatore berezik hitza hartu zuten (Mary Lawlor: Giza Eskubideen Defendatzaileen egoerari buruzko errelatore bereziak; eta Clement Nyaletsossi Voule: Bakean Batzeko eta Elkartzeko Askatasun Eskubideei buruzko errelatore bereziak). Honela gogorarazi zuten: "Estatuak obligazioa du gizarte zibilak behar duen espazio demokratikoa errespetatzeko eta bermatzeko, funtsezkoa baita giza eskubideak, demokrazia eta zuzenbide-estatua sustatzeko eta babesteko; baina GKEen Legeak dakartzan xedapenek urratu egiten dute obligazio hori".⁴⁶

Azkenik, estatuko eta nazioarteko beste erakunde batzuen elkartasun-adierazpenak gorabehera⁴⁷, eta nahiz eta ACOGUATEk komunikatu publiko bat zabaldu zuen "erabat aldenuz 2021eko urriaren 12ko ibilaldian gertatutako indarkeria edo legez kanpoko ekintza guztietatik",⁴⁸ ACOGUATE itxi egin behar izan da, haren aurkako jazarpenagatik, gezurrengatik eta kriminalizazioagatik.

SEIGARRENA – **Momentu honetan, hauteskunde-atarian,** kezkatuta gaude balitekeelako berriro ere indarra erabiltzea, oro har gizarte zibilaren aurka, eta bereziki giza eskubideen defendatzaileen kontra.

Human Rights Watch-ek garbi dio: Guatemalako 2023ko hauteskunde orokorrak "funtsezkoak dira Guatemalako demokrazia hauskorrerako, baina zuzenbide-estatua hondatuta dagoelarik egingo dira; izan ere, estatu horretan hauteskundeak monitorizatzeaz arduratzen diren erakundeek independentzia eta sinesgarritasun gutxi dute"⁴⁹, eta, gainera, "finantzaketa-araubidea ez da ziurra, eta gerta daiteke zirrikituetatik diru zikina sartzea, eta kanpainetan diru publikoa alderdikieriaz baliatzea."⁵⁰

Bestalde, **giza eskubideen eta kolektibo sozialen erakundeak beldur dira hauteskundeen ondoren Guatemalara ez ote den diktadura jiteko gobernu bat iritsiko, eta, gero, hark ez ote duen botere oligarkiko-militarra sendotuko eta are eta estuago itxiko** giza eskubideen defendatzaileen eremu demokratikoa eta ekintza-eremua. Ez dute iruzurra espero; ez, behintzat, bozketen emaitzak aldatzea; baina bai aurretiaz iruzurkeria-prozesu bete bat gertatzea, herritarrek ez dezaten izan askatasunez aukeratzeko eskubidea; horretarako, aurretiaz kanpoan utziz gaur egungo krisia gainditu nahian jauzi bat egin eta politikoki demokrazian parte-hartzea erabaki duten

⁴⁶ <https://spcommreports.ohchr.org/TMResultsBase/DownloadPublicCommunicationFile?gId=26837>

⁴⁷ <https://twitter.com/UDEFEGUA/status/1451625757038555136>

⁴⁸ Ibidem 44.

⁴⁹ <https://www.hrw.org/es/news/2023/01/24/preocupaciones-en-materia-de-derechos-humanos-para-las-elecciones-generales-de-2023>

⁵⁰ <https://moe.gt/primer-informe-mision-de-observacion-electoral-de-guatemala/>

defendatzaile guztiak. Elkarrizketatutako erakunde eta pertsonak jakinarazi digutenez, ustelkeriagatik eta narkotrafikoagatik ikertutako hautagai batzuen inskripzioa baimendu egiten da baina beste hautagai batzuk baztertu egiten dira arbitrarioki, hala nola Herrien Askapenerako Mugimenduaren (MLP) presidentetza-binomioa, biren artean osatua: Thelma Cabrera lider indigena (2019ko hauteskundeetan botoen % 10 lortu zuen), eta Jordán Rodas (herrialdeko giza eskubideen prokuradore ohia)⁵¹.



Hauteskunde Auzitegi Gorenaren erabakiek -eta Justizia Gorte Gorenak eta Konstituzionaltasun Gorteak ere sostengatu egin ditu- kritika eta mobilizazio sozial ugari eragin dituzte⁵²; beraz, badirudi aurreko hauteskunde-prozesuetan baino jende gehiago egon daitekeela aurka. Ildo horretan, Guatemalako Hauteskundeak Behatzeko Misioak⁵³, bigarren txostenean⁵⁴, honako hau dio: "ados ez daudenek zer edo zer egiten badute, ikusi egin beharko da estatuko agintariak nola erantzuten duten, neurri handi batean erantzun horren arabera erregistratuko baitira, gertakari horiek, indarkeria-ekintza edo atsekabetasun-adierazpen gisa". Gainera, 2019ko hauteskunde-prozesuko datuetan oinarrituta, Misio horrek iradokitzen du litekeena dela indarkeriak gora egitea, bereziki «askatasun politikoaren aurkako eta hauteskundearen aurkako hertsapen-ahaleginek, indarkeria, larderia edo mehatxua baliatuz», eta ugaritu egiten direla hauteskunde-prozesuak aurrera egin ahala; litekeena dela orobat hauteskunde-egunean eta hurrengo egunetan jazotzen diren beste indarkeria-ekintza batzuk ere ugaritzea (hautestontziak

⁵¹ <https://www.wola.org/es/analisis/wola-rfk-hrw-preocupacion-condiciones-preelectorales-guatemala/>

⁵² <https://www.resumenlatinoamericano.org/2023/02/21/guatemala-campesinos-protestan-por-la-no-inscripcion-del-partido/> y <https://prensacomunitaria.org/2023/03/comunidades-y-organizaciones-anuncian-manifestacion-contr-el-fraude-electoral/>

⁵³ Guatemalako Hauteskundearen Behaketarako Misioa (MOE-Gt) honako hauek osatzen dute: Ikerketa eta Gizarte Ikasketen Elkarte (ASIES); Garapen, Antolaketa, Zerbitzu eta Azterketa Soziokulturalen Elkarte (DOSES); GKE eta Kooperatiben Koordinazioa (CONGCOOP); Elkarrizketen Elkarte Zibila; Guatemala Ikusgai; Ikerketa Fiskalen Erdialdeko Amerikako Institutua (ICEFI) eta Demokrazia Sozialaren Azterketarako Erdialdeko Amerikako Institutua (DEMOS).

⁵⁴ <https://moe.gt/segundo-informe-mision-de-observacion-electoral-de-guatemala/>

erretzea eta mehatxuak, bahiketak eta hilketak), eta, hortaz, «epe labur baina bizi honetan espero daitekeela indarkeriaren nolakoa eraldatzea».

ZAZPIGARRENA.- Eskerrik asko antolatzaile, gizarte-mugimendu, Guatemalako erakunde publiko, nazioarteko erakunde eta diplomatikoei, oso ondo hartu gaituzte-eta. Aurrerantzean ere agintzen dizuegu ez dugula begi aurretik galduko giza eskubideen defendatzaileen egoera, eta begira egongo garela ea haien lana segurtasun-baldintzetan egiten den, Ordezkaritzak hartutako konpromisoei arreta berezia eskainiz; konpromiso horien artean dago CODECA Nekazarien Garapenerako Batzordearen egoeraren jarraipena egitea.

2015ean ere euskal ordezkari bat joan zen Guatemala, Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programaren barruan, egiaztatzeko ea zein zen programa horretan parte hartzen zuten defendatzaileen egoera. Bada, oraingo konpromisoek ordukoekin bat egiten dute , eta, beraz, HIESari aurre egitearren Sexualitate Integralari Laguntzeko Erakundera ere hedatzen dira (OASIS).



BIBLIOGRAFIA

TXOSTENAK ETA ARGITALPENAK

Amnistía Internacional (2022), *Informe de Amnistía Internacional para el Examen Periódico Universal de la ONU, sesión 42 del grupo de trabajo*. 2022ko ekaina

<https://www.amnesty.org/es/documents/amr34/5738/2022/es/>

Amnistía Internacional (2023), *Informe 2022/23 Amnistía Internacional. La situación de los derechos humanos en el mundo*.

<https://www.amnesty.org/es/location/americas/central-america-and-the-caribbean/guatemala/report-guatemala/>

Brigadas Internacionales de Paz - Proyecto Guatemala (2022), *Boletín n° 48*. 2022ko abendua.

<https://pbi-guatemala.org/sites/pbi-guatemala.org/files/B48.pdf>

Brigadas Internacionales de Paz - Proyecto Guatemala (2023), *Informe Anual 2022*. 2023ko apirila

[Informe Anual PBI 2022_3.pdf \(pbi-guatemala.org\)](https://pbi-guatemala.org/sites/pbi-guatemala.org/files/Informe%20Anual%20PBI%202022%203.pdf)

Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra (CIDH), 2022ko Urteko Txostena. *IV.b kapitulua*. Guatemala. 2023ko apirila

https://www.oas.org/es/cidh/docs/anual/2022/capitulos/10-IA2022_Cap_4B_GU_ES.pdf

Human Rights Watch (2023), *Informe Mundial 2023. Eventos de 2022*.

https://www.hrw.org/sites/default/files/media_2023/01/World_Report_2023_WEBS_PREADS_0.pdf

Misión de Observación Electoral de Guatemala (2023), *Primer informe: Estado del proceso al inicio de la campaña electoral*. 2023ko otsaila.

<https://moe.gt/primer-informe-mision-de-observacion-electoral-de-guatemala/>

Misión de Observación Electoral de Guatemala (2023), *Segundo informe: Estado del proceso al inicio de la campaña electoral*. 2023ko martxoa.

<https://moe.gt/segundo-informe-mision-de-observacion-electoral-de-guatemala/>

OACNUDH Guatemala (2023), *Situación de los derechos humanos en Guatemala en 2022*. 2023ko martxoan.

<https://oacnudh.org.gt/wp-content/uploads/2023/03/Situacion-de-los-Derechos-Humanos-en-Guatemala-2022-Informe-del-Alto-Comisionado.pdf>

UDEFEGUA (2022), *txostena: Situación de personas, organizaciones y comunidades defensoras de derechos humanos en Guatemala, 2021*. 2022ko ekaina

<https://udefegua.org.gt/wp-content/uploads/2022/07/INFORME-UDEFEGUA-2021.pdf>

WOLA (2021), *Esperanza en medio de la oscuridad: las víctimas continúan en su búsqueda de justicia por crímenes del conflicto armado interno de Guatemala*. 2021/12/02.

<https://www.wola.org/wp-content/uploads/2022/01/Esperanza-en-medio-de-la-oscuridad-las-victimas-continuan-en-su-busqueda-de-justicia-por-crimenes-del-conflicto-armado-interno-de-Guatemala.pdf>

WEBGUNEAK

Amnistía Internacional, <https://www.amnesty.org/>

Article19 México y Centroamérica, <https://articulo19.org/>

Human Rights Watch, <https://www.hrw.org>

Misión de Observación Electoral de Guatemala (MOE-Gt), <https://moe.gt/>

OACNUDH Guatemala, <https://oacnudh.org.gt>

Organización de Estado Americanos (OEA), <https://www.oas.org/es/cidh/>

PBI Guatemala, <https://pbi-guatemala.org/>

Plaza Pública, <https://www.plazapublica.com.gt/>

Prensa Comunitaria, <https://prensacomunitaria.org/>

Prensa Libre, <https://www.prensalibre.com/>

NBEk ipini duen errelatorea giza eskubideen defendatzaileen egoera aztertzeko, <https://srdefenders.org/>

Resumen Latinoamericano, <https://www.resumenlatinoamericano.org/>



UDEFEGUA (Unidad de Protección a Defensoras y Defensores de Derechos Humanos - Guatemala), www.undefegua.org.gt

United States Institute of Peace, <https://www.usip.org>

WOLA (Washington Office on Latin America), <https://www.wola.org/>